



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko
Saiburuordetza
Natura Ondare eta Klima Aldaketa
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y
MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad
Ambiental
Dirección Patrimonio Natural y Cambio
Climático

IRAGARKIA, 2022ko urtarrilaren 3koa, Natura Ondare eta Klima aldaketako zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoa eguneratzeko proposamena, odonatu, anfibio eta hegaztien zenbait fauna-espezieri dagokienez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 47. artikulutik 54.era bitartekoetan ezarritakoa eta Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoa arautzen duen uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuaren xedapenak aplikatuz, Natura Ondare eta Klima aldaketako zuzendariaren 2021eko ekainaren 7ko Ebazpenaren bidez, abian jarri zen Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoa eguneratzeko prozedura, odonatuen, anfibioen eta hegaztien zenbait fauna-espezieri dagokienez.

2021eko uztailaren 21ean, Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoa eguneratzeko proposamenari buruzko txostena egin zuten Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiak.

Uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuan ezarritako prozedura betez, Naturzaintza-Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Aholku Batzordearen osoko bilkuran, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoa aldatzeko proposamenaren aldeko txostena aho batez onartu zen.

Ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoki parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legearen 16. artikuluekin bat etorritik, publikoaren benetako parte-hartze eraginkorra sustatze aldera, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren proposamena jendaurrean jartzen da; proposamen hori Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoa eguneratzeari buruzkoa da, bost odonatu-espezieri, hiru anfibio-espezieri eta bi hegazti-espezieri dagokienez.

Horregatik guztiagatik, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuan xedatutakoarekin bat, honako hau

IRAGARTZEN DUT

Lehenengoa.- Hainbat fauna-espezieri dagokienez, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoa eguneratzeko proposamena jendaurrean jartzen da, 20 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Bigarrena. – Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako, epe horretan dokumentazioa ikusgai egongo da, bai egoitza elektronikoan

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ



(<https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/diversidad-biologica-geologica/>), bai
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Natura Ondare eta
Klima Aldaketa Zuzendaritzan, jendaurreko ordutegian, helbide honetan:

Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila,
Donostia-San Sebastián kalea, 1.
01010 Vitoria-Gasteiz.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilak 3.

Natura Ondaren eta Klima Aldaketako zuzendaria
ADOLFO URIARTE VILLALBA.